

## IMANOL AGIRRE

1. Historian beti gertatu den bezala, egoera ekonomiko, politiko, sozial eta kulturalak eragin nabarmena izan dute hezkuntzan azken hamarkada hauetan ere. Ezaguna da, esate baterako, karrera espazialak izan zuen eragina Estatu Batuetako ikasketen diziplinarizazioan.

Gorabehera politiko eta sozialek ere markatu egin dute hezkuntzaren bilakaera Espainian. Trantsizio politikoaren lilura modernizatzaileak ilusio bat ekarri zion arte heziketari: adierazpen askatasunaren eta sormenaren izaera onuragarriak okupatu behar zuela lehen arauari eta irakaspen magistralari erreserbatutako lekua, eta kopiaren praktika uxatu beharra zegoela ikasgeletatik.

Lehenago European bezala, laster egiaztatu ahal izan zen eredu hori desegokia suertatzen zela musika eta irudiak orain arte ikusi gabeko kalitate eta abiaduraz erreproduzitzeko gai diren tramankuluz inguratuta bizi zen europar belaunaldi batentzat.

Europako iparraldearen konponbidea izan zen ikusizkoa artistikoaren osagai-anaia moduan sartzea, arte heziketak erantzuna eman ziezaion irudiak mundu modernoan duen indar gero eta handiagori, eta ikusizkoak sortzen duen esanahi-aparatuaz ardura zedin. Ideia horren oihartzunak Espainiako arte heziketara iritsi ziren 90eko hamarkadan, LOGSEk lehen hezkuntzan “Arte heziketa” eta bigarren hezkuntzan “Heziketa plastiko eta ikusizkoa” izeneko ikasgaiak sisteman sartu zituen.

Baina aldaketa politiko eta sozialak azkartasunez datoz orain, eta eragin handia izaten ari dira arte heziketaren etorkizunean, zenbait arrazoi direla medio. Batetik, gero eta gehiago aitortzen da gisa horretako hezkuntza baten premia eta balioa egungo gizarteetan, haien ezaugarria baita kulturen mestizajea, eraldaketa eta aldaketa. Hala, nazioarteko erakundeen zenbait txostenek aitortzen dute herritar kritiko eta gaituak hezteko ikasketa horiek duten garrantzia hausnarketa etiko-estetikorako. Beste alde utilitaristago batetik, lehen mundua esaten zaion horretako herrialde gero eta gehiago ari dira ulertzen beren etorkizun ekonomikoa ez dagoela jada eskulan kualifikatua prestatzearen baitan, ez baita garapen bidean dauden beste herrialde batzuetako eskulanarekin lehiatzeko gai, eta horregatik beste gaitasun batzuei ematen diete garrantzia, hala nola produktuen diseinuen asmamenari edo sormenari.

Testuinguru horretan, jakintza esparru berriak agertzea -esaterako kultur ikasketenak, ikuspegi diziplinarrak baino gehiago antropologikoak agertzen dituztenak- eragin handia izaten ari da hezkuntza paradigma berrien sorkuntzan, eta arte heziketa ez da horretan kanpo geratzen. Arte heziketa birpentsatzeko eta “ikusizko kultura ulertzearen aldeko heziketa” terminoetara eramateko proposamena dugu halako jarreraren adibide sendoena. Eta hori, haren inspiratzaileetako baten, Paul Duncum-en esanetan, diziplina akademiko horretan gertatutako iraultzarik handiena da akademizismoa adierazpen librearen mesederako alboratu zenetik. Gainera, testuinguru berri horretan ari dira gertatzen eztabaida interesgarrienak, arte heziketan ikuspegi kulturalizazioak edo generokoak teorizatu eta garatzearen inguruan. Eztabaida horietan mota guztietako proposamenak biltzen dira, haien elikadura diren ikuspegi ideologiko eta politikoen aniztasunari dagokion bezala.

Aldaketa teknologikoak ere oihartzun handia izaten ari dira arte heziketaren bilakaeran. Arte molde desobjektualizatuak agertzeak, zeinetan nola produktua hala egiletza disolbatu egiten baitira, arte heziketaren ikasketen xedea -ia beti arte kanonikoak- birplantatzea dakar. Net.art edo ziber-arteko proposamenek oihartzuna aurkitzen dute gure lan eremuko

zenbait ikertzaileengan, eta haietatik sortuz doaz artefaktu artistiko berriak ahalik eta gehien ustiatzen saiatzen diren heziketa proposamenak. Eta ez dira sortzen ari zentzu instrumentalean -bitarteko horiek erabilia-, baizik eta zeregin horretan ideien beraien eraldaketarako eta gisa horretako proposamenek dakartzaten kultur ohituren potentzial guztia sartuta.

2. Horixe da, hain zuzen, hezkuntzan gaur egun dauden erronka handienetako bat. Eskola erakundeek, borondate politikoaren mendean dagoen guztiak bezalaxe, makineria mantso astun bat osatzen dute, aldaketa garaietan (eta aldaketa zorabiagarriak ari gara bizitzen gaur egun) ikasgelan diharduten profesionalei ikerketatik edo artearen sektore profesionalizatuenetatik proposatzen dena erraztasunez bereganatzea eragozten diena. Hezitzaileen prestakuntza iraunkorrean dudan esperientziak esaten dit ezagutza berriak eta hezkuntzan lan egiteko modu berriak finkatze horretan bi kontu funtsezko daudela. Lehena malgutasuna eta pazientzia da. Bere burua aditutzat jotzen duenaren intransigentziak eta harrokeriak deus gutxitarako balio du arte proposamen jakin batzuk ulertzeko zailtasunak dituzten irakasleak aurrean dituenean.

Funtsezkoa da orobat, eta hau izango litzateke nabarmendu beharreko bigarren kontua, argitasuna ideiak azaltzeko orduan, eta haien esperientzia zuzenetik frogatzea. Izan ere, sarriegi gertatzen baita arteen inguruan hizkuntza molde kriptikoak erabiltzea, batzuetan iniziatuen jargoi hutsa, eta horiek oztupoak jartzen dituzte, zubiak baino areago, ikertzaileen diskurtsoen eta ikasgelan gertatzen diren egoeren artean.

3. Nire kasuan, zirriboratu berri dudan jarrerarekiko engaiatua den jokabideari jarraitzen saiatzen naiz, arte heziketa artea esperientzia gisa hartzearen inguruan edo horren bidez artikulatzen saiatzen naiz. Horri esker, edozein lekutan zein garaitan izandako edozein arte molde sar dezaket ikasketan, eta horien alboan, esperientzia estetikoaren beste edozein forma edo bide, esate baterako, ikusizko kulturarenak. Esparru horietako edozeinetan sortutako artefaktu estetikoak, giza esperientziaren kondentsazio moduan ulertzen badira, zenbait diziplina alorretik azter daitezke, eta hartara arte irakasleentzat zein ikasleentzat eskurago jarri. Edonola ere, hori nola gauza daitekeen xehetasunez aletzeak elkarriketa-formatu honek eskain ditzakeen baino espazio zein baliabide gehiago eskatzen ditu.

**Imanol Agirre** Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) Psikologia eta Pedagogia Departamentuko irakaslea da. Haren artikuluen artean “Teorías y prácticas en educación artística” azpimarra daiteke.

CC

*Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:*

[http://creativecommons.org/license/index\\_html?lang=eu](http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu)